



DEBAKO UDALA

- ABENDUAK 3 -

ARNASA ETA BIDEA ZABALTZEN

Udalerrri euskaldunen adierazpen bateratua

Berriki ezagutu ditugu udalerrri euskaldunen bilakaera soziolinguistikoaren datu gehiago. Euskararen ezagutzak gora egin duenez, gero eta gehiago dira udalerrri euskaldunak, eta euskararen lurgunea ere sendotzen ari da. UEMARA gehitu diren azken udalak kontuan hartuta, berriz, 300.000 biztanleko lurgune euskalduna osatzen dugu Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko herriek.

Ez da nolanhiko zenbakia. Euskal Herrian ekoizten den euskararen erdia udalerrri euskaldunetan ekoizten baita. Hemen dago, kuantitatiboki, euskararen errealitatearen erdia. Kualitatiboki, berriz, euskarari hauspoa eta arnasa ematen diote udalerrri euskaldunek. Berebiziko garrantzia dute euskararen biziberritzean, transmisioan eta indarberitzean, eta herri honen izaeraren ardatza dira. Euskararen herriak gara, eta Euskararen Herria osatzen dugu denon artean. Euskal Herria.

Hizkuntzaren osasuna, ordea, erabilerak erakusten du, eta hor erronka handiak ditugu, gaur bertatik hasita. Hizkuntza ohiturak aldatzeko eta euskara sustatzeko ariketa handia egin dugu azken egunotan, bai herritarrek, gizarte eragileek zein erakunde publikoek.

Atzo amaitu zen Euskaraldia, eta beste behin ere ederra izan da herri honek euskaraz bizitzeko adierazi duen gogoia. Euskararen biziberritzea, ordea, ezin da ulertu ahalegin indibidualen batuketa moduan. Erakunde publikoari eredu izatea dagokigu, eta herritarrei euskaraz bizitzeko bidea bermatzea eta erraztea.

Udalerrri euskaldunei eustea ezinbestekoa du herri honek, euskararen herria izaten jarraituko baldin badu. Horretarako, udalerrri euskaldunak garatzeko erabakiak eta bitartekoak behar ditugu, udalerrri bizirik eusteko. Baina baita udalerrri horietan euskarari eusteko ere. Hirigintzan, ekonomian, lurralde antolaketan, kulturen edota turismoa sustatzeko ekimenetan hartzen ditugun erabakiek eragin handiagoa izan dezakete euskararen erabileran eta bilakaera soziolinguistikoan, euskara zerbitzuetatik hartzen diren erabakiek edota egiten den hizkuntza politikak baino. Aurten, Euskararen Eguna, hori ikusarazteko eta ulerrarazteko mugarria izatea nahiko genuke.

Izan ere, udalerrri euskaldunetan euskarari eusteko egiturazko erabaki ausartak behar ditugu, elebitasun orekatua gainditu eta oraindik ere hauskorak diren udalerrri euskaldunetan euskarak bidea eta arnasa zabaltzen segi dezan.

Deban, 2022ko azaroaren 24an.